

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Ubidearen lehen fasea handitzeko obrak urtearen amaieran hasiko dira

*Barcina Lehendakaria izan da buru adarraren esleipen-kontratua sinatzeko ekitaldian. Ega eta Arga ibaien arroetako 15 herrik izango dituzte onurak horri esker.*

Miércoles, 21 de mayo de 2014

Nafarroako Ubideko eremu ureztagariaren lehen fasea handitzeko obrak urtearen amaieran hasiko dira, izan ere, gaur, asteazkena, adar hori eraiki eta ustiatzeko kontratua sinatu da Iruñean. Lanen emaitzari esker, Ega eta Arga ibaien arroetako hamabost herrik onurak izango dituzte. Itxura guztien arabera, obrak 2017. urtean amaituko dira eta laboreen lehen lursailak 2015ean ureztatuko dira.



Lehendakaria sozietate emakidaduneko ordezkariekin eta kontratua izenpetzeko ekitaldira joan direnekin.

Kontratua sinatzeko ekitaldia Foru Gobernuaren egoitzan izan da, Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariaren aurrean. Hark, egin duen [mintzaldian](#), azpimarratu du azpiegitura estrategikoa dela Nafarroa egituratu eta garatzeko. Besteak beste, ureztatzeak martxan jarri zirenetik ubidearen lehen faseko lursailen produktibitate gordina lau aldiz areagotu dela nabarmendu du.

Testua José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak izenpetu du INTIA enpresa publikoaren lehendakaria den aldetik, baita Rafael Martín de Nicolás OHLren zuzendari nagusiak eta Albert Martínez AGBARen zuzendari nagusiak ere, sozietate emakidadunaren izenean. Grupo Obras Especiales, Iruña, HNV eta Arian Nafarroako enpresak partaidetutakoak dira.



Esparza kontseilaria, ondoan Martín de Nicolás (ezk.) eta Martínez (esk.) dituela, kontratua sinatu duten unean.

ere aipatu diren sozietateetan

Kontratuak zera jasotzen du: 30 urtez, Aguas de Navarra S.A. sozietate emakidadunak obrak egin, eremu ureztagarria ustiatu eta bertan mantentze-lanak egingo dituela.

Ekitaldian izan dira Félix Chueca Nafarroako Ubideko ureztatzaileen elkarteko lehendakaria, eta uraren plataformaren bidez azpiegituraren eraikuntzaren aldeko alderdi politikoetako eta gizarte- eta enpresa-erakundeetako ordezkariak.

### **Ureztatze-sistemen hobekuntza**

Lehen fasea handitzeko proiektuak 15.275 hektarea hartzen ditu, Andosilla, Azagra, Berbintzana, Carcar, Faltzes, Funes, Larraga, Lerin, Lodosa, Mendigorria, Miranda Arga, Oteitza, Azkoien, San Adrián eta Sesma herrietakoak. Herri horietako ureztatzaileek onurak jasoko dituzte partzelak elkartu, ureztatze-sistema modernizatu eta ltoiztik datorren kalitatezko ura eskuratzeko gaitasuna izateak dakartzaten abantailak direla eta.

Gaur egun, eremu horren bi herenak ureztatzeko modu tradizionalak erabiltzen dira, zaharkituta dauden egiturekin edo erabilera- eta energia-kostu handiko ureztatze-sistemekin. Gainera, agorraldian, ur kopurua eskasa izaten da, Ega ibaiko ura erabiltzean batez ere.

Proiektuak jasotakoaren arabera, sekain-lurren 5.431 hektarea ureztatzeko eraldatuko dira eta azalera ur ugari botata ureztatu izan diren beste 6.005 hektarea modernizatuko dira. Presio bidezko ureztatzeak zein agorraldian ur-hornidura bermatuta izateak dakartzan abantailak izango dituzte. Horrez gain, ureztatzen diren beste 3.839 hektarearen energia-kostuak murriztuko dira. Gaur egun oso garestia da, ureztatzeko ura altuera handiko tokietara igo behar delako (200 metro inguru) sare elektrikoaren mendeko ponpaketa-sistemen bidez.

Azpiegiturak modernizatuta, urtean 26,7 hektometro kubiko aurreztuko direla kalkulatu da, izan ere, galera handiak dituzten zaharkitutako ureztatze-sistemak ordeztuko dira presio bidezko (aspertsioa eta jarroa) eta eraginkortasun handiko sistemekin. Hala, 5.530 metro kubiko kontsumituko dira hektarea bakoitzeko urtean Nafarroako Ubidetik.

Jarduera honi esker Arga eta Erga ibaietara doazen emariek Ega, Arga eta Aragoi ibaietako ur kopurua handituko dute. Ur hori Uraren Esparru Zuzentarauaren irizpideak betetzeko ez ezik, energia sortzeko ere erabiliko da.

### **Produktibitatea handitzea**

2013an, Nafarroako Ubidearen lehen faseko hektarea bakoitzeko produktibitate gordina 3.591 eurokoa izan zen, 2012ko lortu zen 3.039 euroko produktibitatea baino gehiago. Hektarea erabilgarri guztiak kontuan hartuta, produktibitate gordina 80,2 milioi eurokoa izango litzateke urtean.

Ureztatze-sistema ezarri aurreko batez besteko produktibitate gordina sekain-lurren hektarea bakoitzeko 897 eurokoa zela oinarri hartuta, ureztatzeen sistema martxan jartzeari esker lortutako produktibitatearen hazkuntza 60,1 milioi eurokoa da urtean.

Gainera, laborantza ere areagotu eta dibertsifikatu egin da. 2013an, 48 labore landu dira ereuan. Barazkiek (batez ere tomatea, baba, arto gozoa, ilarra eta indaba), eraldaketaren aurretik ohikoak ez zirenek, 3.292 hektarea hartzen dituzte.

Urte horretan, uzta bikoitzen portzentajea % 8 izan zen eremu ureztagarri osoan, eta sail ureztatu batzuek uzta bikoitzen % 22 eta % 30 ere lortu zuten. 51 uzta bikoitz ezberdin ere garatu dira eremuan (baba-artoa, bazka-artoa, ilarra-indaba etab.).